

KULTURAKAFETERTULIA

Txosten hau, Kulturari eskainitako kafe tertulia bezala, bi zatitan oinarrituko da. Herri-olaren azalpen orokorrak albo batera utzita, batetik "Harreman sarea" zertan den azalduko zaizu, eta ondoren, lan taldeetan batu eta herriko kultur gintzaren beharrak, premiak edo gakoak antzemateko egin zen lanaren isla aurkituko duzu.

a. HARREMAN SAREA: OTXANDIOKO KULTUR ERAGILEEN TOPAGUNE

b. KULTURGINTZAREN BEHARRAK, PREMIAK EDOTA GAKOAK

HARREMAN SAREA:

OTXANDIOKO KULTUR ERAGILEEN TOPAGUNE

Harreman sarearen helburu nagusia

Otxandio nortasun handiko herria dela ez du inork zalantzan jartzen. Mendeetan zehar, herriaren kokapen geografikoak eta herritarrek beraiek eratu dute Otxandioren nortasuna. Jendartearen ezaugarriak garrantzitsuenetarikoa herritarren parte-hartze handia da, kultur edo kirol arloan askotariko talde eta elkartek dihardutelarik lanean.

Hala ere, elkarteen ugaritasun horrek, oraindik orain behintzat, ez du ezberdinen arteko elkarlana ekarri. Nahiz eta espazio geografiko bat konpartitu ez dago komunikazio biderik eragile ezberdinen artean

Hori horrela, harreman sare hau, herriko eragile ezberdinen arteko zubi lanak egitera dator. Bestera esanda, herriko talde ezberdinen artean komunikazioa erraztuko duen topagune bat izatea du helburu. Norberaren kolektibotik begiak altxatu, eta herriko kolektibo guztiek osatzen duten errealtatearen ikuspegi orokorra lortzen lagunduko du tresna berri honek. Besteak beste, sare honek, herriko beste taldeak zer landu edo antolatu nahian dabilzan jakiteko, zalantzak konpartitzeko, eztabaidak zabaltzeko, arazo komunei irtenbide kolektibo bat emateko, edota eragile ezberdinek antolatutako ekintzak gainjarriko ez diren kultur-kirol agenda osatzeko aukera eman dezake. Are gehiago, etorkizunean harreman sare honek, herriko kolektibo ezberdinen artean helburu komunak konpartitzea eta ekintza ezberdinak elkarlanean antolatzea ekar dezake.

Harreman sarearen partaide eta topaguneak

Elkarteen arteko komunikazioa eta elkarlana bultzatzea helburu duen sare bat izanik, harreman sare honetan parte hartzeko aukera herriko edozein elkartek izan dezake. Honek guztiak aurrera jarraituz gero, etorkizunean, Otxandioko kultur nortasunaz eta kultur proiektuez arduratuta dagoen edozein norbanakori ere parte hartzeko aukera emango litzaioke.

Harreman sare honek izango lukeen antolaketa erak, kontuan izango luke elkarte bakoitzeko kide bakoitzak bere taldean duen lan eskerga handia, eta ondorioz ez lioke inolako gainkarga berririk sortuko edota esfortzu handirik eskatuko. Hori horrela, bi motatako topagune proposatzen dira.

Batetik, urtean birritan (urte hasieran eta uda ondoren) batzar batera deituko lirateke herriko kirol eta kultur eragiletako ordezkari guztiak. Bertan, eragile ezberdinen arteko ekintzak gainjarriko ez diren hurrengo hilabeteetarako herriko kultur agenda definituko litzateke eta momentuan momentuko arazo kolektiboak eztabaidatuko lirateke.

Bestetik, posta elektroniko bidezko sarea osatuko litzateke. Uneoro elkarren artean konektatua egoteko modu egonkorra izanik, azken orduko agenda aldaketan berri emateko, elkarren artean gonbidapenak luzatzeko edo momentuan sortutako zalantzak argitzeko balioko lukeelarik. Honekin batera, "google calendarren" bitartez, eragile guztien agenda jasoko lukeen online egutegia sortuko da.

KULTURGINTZAREN BEHARRAK, GAKOAK EDOTA ARAZOAK

KULTURA SORTZAILEA VS. KULTURA KONTSUMITZAILEA

Gaur egun, jendartean orokorrean eta baita gure herrian ere, kultura sortzeko baino, kultura kontsumitzeko ohitura dago. Herritarrak kultur-sortzaileak izan beharrean, kultura kontsumitzaileak izaten gara. Bestera esanda, kasuak kasu, herritarra kultur ekintzen subjektu baino objektu hutsa, ikusle hutsa izaten da normalean. Horri buelta emateko beharra ikusten da.

KULTURA IKUSTEZINA BULTZATU BEHARRA

Artista “ikusezinak” ikusarazi eta beraien lanak kalera ateratzera animatu. Norbere etxean aritzen den artista asko dagoela uste da. Batzuk idatzi, beste batzuk marraztu, hirugarren batzuk musika jo... Antzeko abileziak dituzten herritarrak elkarrekin harremantzeko eta elkar ezagutzeko baliabideak ipini behar direla uste da. Horrela, proiektu politak irten daitezkeela uste da.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Azken urteetan antolatutako ikuskizun eta proiektu kultural ezberdinetan Otxandioko herritarrek izan duten parte hartzea kontuan izanik, Otxandioko jendea kultura arloan murgiltzeko prest dagoela ondorioztatu da.

Hori horrela izanik ere, ondoko galdera planteatzen da: Ekintza dena delakoa izanik eta dena delakoak antolaturik ere, ez al du beti jende bertsuak parte hartzen? Hausnarketa txiki bat eginda, askotan ikusten dugu gauza askotarako prest dagoen jendea beti bera dela, eta gutxitan ikusten ditugu aurpegi berriak. Zergatia bilatzeak hausnarketa sakon bat suposatuko luke: Akaso ez gara jende guztiarengana heltzen? Ez al ditugu mota ezberdinetako gustuak asetzen? Erosotasun arazo bat izango da? Jende berriak ez al du sentitzen beraientzako eskaintza denik? Beharbada talde itxi bat sumatzen dute? Ikuskizun eta emanaldi antzerakoak eskaintzen al dira beti eta ez dugu beste arlo batzuetan erreparatzen (txarlak, liburuen aurkezpenak, historia...)? Ez al ditugu ezagutzen gure herrikideen beharrak edo premiak?.

Aurretik planteatutako galderari edo hausnarketari erantzun posible gisa, jende askoren "indiferentzia" azaldu da. Ez bakarrik ikuskizun edo proiektu ezberdinak aurrera eramateko edota proiektu horien antolaketan parte hartzeko orduan, baizik eta ezeren truke (normalean debalde izaten baitira ikuskizun guztiak) ekintza konkretu baten ikusle hutsa izateko orduan ere jende kopuru garrantzitsu batek ageri duen "indiferentzia" nabaritu da.

Egia da ezin garela kexatu, Otxandio herri txiki bat izanda, ikuskizunetara hurbiltzen den jende kopurua ez baita txikia izaten, baia irakurketa horretan sakontzen badugu, aurrez esan bezala, betiko jendea ikusten dugu behin eta berriz kultura egarri hori asetzen

GAZTEEN PARTE HARTZEA KULTUR ALORREAN

Gazteen artean gero eta sortzaile gutxiago dagoela nabaritzen da. Koroan, bandan, txistulari taldean... gazteen falta sumatzen da. Are gehiago, parte hartze aktiborik eskatzen ez duen kulturen ere, hau da, aurretik deituriko "kultura kontsumistan" gazteen parte hartzea oso baxua dela uste da. Bertso Afaria azken honen adibide.

KULTUR ERAGILEEN EGOERA

Eragile bakoitzak bere autokritika egin beharra duela sumatu da. Ez da beti dena ondo egiten eta ekintza ezberdinak antolatzean gaizki egindakoak ere kontuan izan behar dira, geroan antolatzen direnak hobetzeko eta aurrera egiteko.

Autokritika honen barruan joango litzateke ere, eragile baten existentziaren gaineko eztabaida ere. Kultur taldeak jaio eta hil egiten dira eta horren inguruan hausnartu beharra du eragile bakoitzak. Eragileekin bezala, ekintza ezberdinak ere jaiotzeko eta hiltzeko eginak daudela onartu behar dela uste da.

Duela hamar edo hogeituro urteko Otxandiok egungoarekin zerikusirik ez duela uste da, eta ondorioz, gaur egun dauzkagun behar eta premiak kontutan hartuta, ideia berritzaile eta bultzada freskoez lagunduta, arlo kulturala eguneratu behar dela uste da.

Aurrez aipatutako ideia berritzaile eta bultzada freskoen iturri gazteak dira. Jende berriaren inplikazioa behar-beharrezkoa dela ondorioztatu da. Bestera esanda, errelebo "jenerazionala" behar dela ondorioztatu da. Hori horrela izanik ere, ondoko galderak egiten dira: Gazteak ez ote dira horren konprometituak? Nola lortu errelebo hori? Jendartearen errua izan daiteke?

INIZIATIBA PERTSONALAK BULTZATU BEHARRA

Iniziatiba pertsonalak bultzatu behar direla uste da, askotan gauza berriak alboratzeko joera izaten dugu eta. Honen adibide batukada.

MUSIKA ESKOLA BATEN BEHARRA

Herriko musika bandak, txistulariek... duten egoera ikusirik, agian, Otxandion musika eskola baten beharra dagoela uste da. Musika eskolak, banda eta txistu eskolez gain, bere gain hartu beharko lituzke gaur egun ematen diren solfeo eskolak, akordeoi eskolak...

KULTUR AZPIEGITURAK

Gaur egun dauden kultur azpiegiturak nola hobetu eta etorkizunean herrian beharko liratekeen azpiegituren inguruko hausnarketa egitea beharrezkoa dela ikusten da.

KULTURGINTZARAKO BALIABIDE MATERIALAK

Azpiegiturez gain, herriko kultur alorrean behar diren baliabide materialak zehaztea beharrezkoa dela uste da. Besteak beste, eszenatokia, argiak... Ez hori bakarrik, baliabide batzuk izan dezaketen kostuarengatik, beste herri batzuekin baliabideak konpartitzea planteatzen da.